

Jarduerak

Jarduerak burutu ahal izateko, jarduera baimena eskuratu behar da, obra baimenaz gain. Jarduerak bi talde nagusitan banatzen dira, jarduerari aplikagarri zaien 3/1998-ko Ingurumenari buruzko Lege Orokorren eta 165/1999 Dekretuaren arabera:

165 /1999 dekretu bidez Salbuetsita dauden jarduerak ondorengo tramitazioa izango dute:

1. Jarduera egitasmoa aurkeztu beharko da udalean 165/1999 Dekretuaren betekizuna aztertuaz
2. Erakustaldi publikoan egongo da egitasmoa 10egunez eta bizilagunei jakineraziko zaie.
3. Udal teknikariek jarduera egitasmoari txostena egingo diote, bere kasuan dagozkion neurri zuzentzaileak ezarriaz.
4. Jarduera baimena eskuratzeko, obrak hasi ahal izango dira.
5. Behin obrak bukatuta, IREKITZE BAIMENA eskatuko da.
6. Irekitze baimena eskatzeko ondorengo dokumentuak ekarriko dira udalera: - Ur, Argindar eta gas instalakuntzetako buletinak - Jardueratako Alta, Lizentzi fiskala
7. Irekitze baimena eskatzean, Udal teknikariek ikustaldi bisitaldia egingo dute, obrak emandako baimenaren arabera egin direla ikusteko.

Salbuetsita ez dauden jarduerak:

1. Eskumendun Tekniko batek sinatutako eta dagozkion Elkargoak ikusonetsitako Jarduera egitasmoa aurkeztu beharko da udalean.
 2. Erakustaldi publikoan egongo da egitasmoa 15 egunez eta bizilagunei jakineraziko zaie.
 3. Udalak, Eusko Jaularitza, Osakidetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko tramiteak egingo ditu.
 4. Behin Tramitek bukatzean, Udal teknikariek jarduera egitasmoari txostena egingo diote, bere kasuan dagozkion neurri zuzentzaileak ezarriaz.
 5. Jarduera baimena eskuratzeko, obra baimena emango da.
 6. Behin obrak bukatuta, IREKITZE BAIMENA eskatuko da. Irekitze baimena eskatzean, Udal teknikariek ikustaldi bisitaldia egingo dute, obrak emandako baimenaren arabera egin direla ikusteko.
 7. Irekitze baimena eskatzeko ondorengo dokumentuak ekarriko dira udalera:
- Ur, Argindar eta gas instalakuntzetako buletinak
 - Jardueratako Alta, Lizentzi fiskala
 - Osakidetzako ikusonetsiaren ziurtagiria.
 - Industria baimena Hotzgailu sistemekiko
 - Obra bukaerako planu zehatzak
 - Ikusonetsitako obra bukaerako ziurtagiria, bertan obra, emandako baimenaren arabera burutu dela adierazi beharko da eta obra bukaerako likidazioa ekarriko da.

Lege eta dekretuak:

- [3/1998 Legea](#)
- [165/1999 Dekretua](#)